



**Gurasoen Hasierako Ebaluazioen aldeak:**

**2009-2010/2010-2011. ikasturteak**

**GALTZAGORRI ELKARTEA**

2011ko irsaila

---

## HAUR LITERATURAREKIKO GURASOEN OHITURAK ETA JARRERAK

- Hasierako galdekizunaren helburua gurasoek hurrekin irakurketa lantzerakoan zer ohitura eta joera dituzten, Haur Literaturako baliabideei buruz zer ezaguera maila duten eta zer espero duten Bularretik Mintzora egitasmoarekin jakitea da.
- Horrez gainera, ebaluatuak izan diren herri horietan egiten den bigarren ebaluaketa denez, hasierakoaren emaitzekin konparaketa egiteko ere baliagarria da. Horrela, Bularretik Mintzora egitasmoaren “lehen onurak” egiaztatzen dira.
- Kontuan hartu behar da, 2009-2010. ikasturtean egin zen hasierako ebaluaketa 5 herriren datuak bildu zirela (Amurrio, Ermua, Iurreta, Oñati eta Tolosa). Kasu honetan 2-5 urte bitarteko haur guztien gurasoen artean banatu ziren gainera.
- 2010-2011. ikasturteko hasierako ebaluaketa berriz, 8 herriren datuak bildu eta ebaluatu dira (Amurrio, Ermua, Iurreta, Oñati, Tolosa, Markina, Legazpi eta Aramaio). 8 herri horietako eskoletan banatu dira galdekizunak, 3 urteko haurren gurasoen artean bakarrik oraingoan. (Lehenengo ikasturteko esperientziaren ondoren, Hasierako Galdekizuna 3 urtekoen artean eta Bukaerakoa 5 urtekoen artean bakarrik banatzea erabaki zen).
- Horretarako 6 aldagai kontuan hartu dira:
  - ✓ Gurasoen datuak
  - ✓ Irakurketarekiko jarrerak
  - ✓ Kontakizunaren jarduera haurrekin
  - ✓ Narraziorako baldintzak
  - ✓ Haur Literaturarekiko baliabideen ezagutza maila
  - ✓ Liburutegiaren erabilpena


Txosten honetan 2009-2010. ikasturtean eta 2010-2011. ikasturtean herri horietan egin ziren hasierako guraso ebaluazioen emaitzen arteko konparaketa kuantitatibo bat egiten da.

## 1. ERANTZUNARI DAGOKIONEZ

- Aurrekoarekin konparatuz, %3 **gehiagok** erantzun du galdekizuna, % 54ak hain zuzen ere.


## 2. GURASOEN IKASKETA MAILARI DAGOKIONEZ

- Aurreko ikasturteko emaitzekin konparatuz, ez da desberdintasun nabarmenik azaldu.




### 3. BULARRETIK MINTZORA EGITASMOAREKIKO ITXAROPENEI DAGOKIENEZ

- Bigarrengo ebaluaketan, guraso gehiago dira **HLko baliabideak ezagutu** nahi dituztenak, iazkoarekin konparatuz **%18 gehiago**, %61a hain zuzen ere.
- Emaitza honek adierazten du BM egitasmoak sortu dituen Haur Literaturako baliabideek (CDa, liburu gomendagarriak, ...) eta ekimenek (irakurketa klubak, motxilak liburuekin, ...) guraso eta haurren HLko baliabideekiko jakin-nahia eta “kutsadura” sortu dituela.




### 4. IRAKURKETAREN GOIZTIARTASUNAREN GARRANTZIARI DAGOKIONEZ

- **%7 gehiagok** uste du garrantzia duela, (ia guztiek, %99ak).
- Datu hau ere bat dator galdekizuna bete duten gurasoen haurren adinarekin (3 urte); zenbat eta txikiago izan haurra orduan eta konbentzituagoak daude gurasoak irakurketaren garrantziaz.




## 5. HAUR KANTAK ABESTEARI DAGOKIONEZ

- Arlo honi dagokion galdera aldatu da. 2009-2010. ikasturteko hasierako galdekizunean, ea **sehaska kantak** kantatzen zizkioten haurrari galdetzen zitzairen gurasoei. Bigarren galdekizunean aldiz, ea **haur kantak** kantatzen dizkioten haurrari galdetu da. Aldaketa hau kontuan harturik, “bai” erantzun dutenak **%60 gehiago** dira. Hobekuntza izugarria ikusten denez (%93ak baietz erantzun du).
- Hobekuntza nabarmen honen arrazoiak hauek izan daitezke: alde batetik “haur kanteak” sehaska kanteak baino eremu “zabalago” hartzen dutela. Horregatik, 3 urteko haurren gurasoek, sehaska kantez gain, beste haur kanta batzuk ere kantatzen dizkiete haurrei.
- Beste arrazoiak hau izan daiteke: BMko baliabideak (CD-liburuak bereziki) hasi direla gurasoengan bere fruituak ematen (gurasoek haur kantak entzun dituztelako eta zaletasuna “pizten” hasi zaielako).




## 6. IPUINAK KONTATZEAREN MAIZTASUNA

- Arlo honetan ez da aldaketa nabarmenik azaldu iazko emaitzekin alderatuz.




## 7. KONTAKIZUNAREN UNEARI DAGOKIONEZ

- Arlo honetan ere alde nabarmenak aurkitu ditugu iazko emaitzekin konparatuz. Alde batetik, haurrari **“lo hartu aurretik”** ipuina kontatzen diotenak **%14 gutxiago** dira; (%54a). Bestetik, **“edozein momentuan”** ipuina kontatzen diotenak **%18 gehiago** dira; (%43a).
- Bigarren ebaluaketako emaitza hauek, aurrekoekin konparatuz, hobeak dira irakurtzeko zaletasunaren sustapenari dagokionez, gurasoek haurraren egunerokotasunean haur literaturari “presentzia” gehiago ematen baitiote, ipuinaren unea ez dute lotara joateko garaira bakarrik mugatzen.




## 8. IPUINAREN KONTATZAILEARI DAGOKIONEZ

- Arlo honetan ez dira aldaketa nabarmenak azaldu, aurreko urteko emaitzekin konparatuz. Emakumeak, bereziki, jarraitzen du izaten ipuina kontatzen duena.
- Emaitza honen atzean, ohituraz aparte, arrazoi kulturalak eta psikoafektiboak daude.




## 9. HL-KO BALIABIDEEN EROSKETARI DAGOKIONEZ

- Arlo honetan ez dira aldaketa nabarmenak azaldu, iazko emaitzekin konparatuz.




## 10. HL-KO BALIABIDEEN ADIN EGOKIAREN INFORMAZIOARI DAGOKIONEZ

- Arlo honetan ere alde nabarmenak aurkitu dira. Informazio **“gutxi”** dutenak, aurreko urtean baino **%15 gutxiago** dira (%33a); **“nahiko”** informazio dutenak **%12 gehiago** dira (%53a).
- Emaitza horiek, nabarmen hobetu dira. Seguru aski, gurasoek, orokorrean, informazio gehiago dute BM egitasmoaren eraginari esker. Ebaluatutak izan diren eskoletan eta herri horien liburutegietan HLko foiletoak, CD-liburua, ... banatu dira eta gurasoei informazio hori pixkanaka iristen ari zaie.



## 11. HL-RI BURUZKO INFORMAZIOAREN ERABILERARI DAGOKIONEZ


- Orokorrean, arlo honetan ere aldeak azaldu dira: informazio **“bat ere ez”** dutenak **%12 gutxiago** dira; **“gutxi”** dutenak **%6 gutxiago** eta **“nahikoa”** dutenak **%15 gehiago**.
- Emaitza horien hobekuntzaren arrazoiak aurreko bera da: BM egitasmoak eskaintzen duen baliabideen informazioa, alegia.






## 12. INGURUKO BALDINTZEN KONTROLARI DAGOZKIENEZ

- Arlo honetan ere emaitzak nabarmen hobetu dira aurrekoekin konparatuz. Orokorrean, gurasoek gehiago zaintzen dituzte inguruko baldintzak ipuina kontatzerakoan. **“Isiltasuna”** zaintzen dutenak **%12 gehiago** dira; **“Arreta izatea”**, **%7 gehiago** dira eta **“gurasoa bera erlaxatua eta motibatua egotea”**, **%12 gehiago**.
- Argi dago bigarren ebaluaketa egin duten gurasoek kontakizunaren baldintzei garrantzi handiagoa ematen diotela. Hobekuntza honen arrazoia BM egitasmoaren baitan egiten diren hainbat ekintzen eragina izan daiteke; besteak beste, Irakurketa Klubak, gurasoen formazio saioak, irakasleen formazioa, ...



### 13. LIBURUTEGIRA JOATEARI DAGOKIONEZ

- Liburutegira joaten direnak **%17 gehiago** dira, aurreko urteko emaitzekin konparatuz (%67a hain zuzen ere), maiztasun desberdinarekin.
- Irakurtzeko zaletasuna suspertzearen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat liburutegiaren erabilpena da. Zentzu honetan, hobekuntza hau aurreko urteko emaitzekin alderatuz, nabarmena da. Argi dago ebaluatuak izan diren herri horietan BM egitasmoak liburutegira erakarri dituela guraso eta haur gehiago.



#### 14. MAILEGUAREN ERABILPEN ETA BALIABIDE MOTARI DAGOKIENEZ

- Liburutegira joaten direnen artean, bigarren ebaluaketa hau egin duten gurasoek mailegua %12 **gehiago** erabiltzen dute, aurreko urteko emaitzekin konparatuz.
- Mailegatuak izaten diren baliabideei dagokienez, ez dira aldaketa nabarmenak azaldu.
- Arlo honetan ere hobekuntza nabaria izan da. Horren arrazoia aurreko bera izan daiteke. Beste arrazoi bat honako hau izan daiteke: eskolaren eta liburutegiaren arteko koordinazioa Bularretik Mintzorako motxilen bidez, mailegu kopuruak handituz.

